

WWW

WORLD MARITIME WEEK

4 CONGRESOS EN UN ÚNICO ENCUENTRO AL MÁS ALTO NIVEL

Bilbao Exhibition Centre,
21 - 23 de marzo
2023



SINAVAL
International shipbuilding

europfishing
International Fishing Industry

future port
bilbao

oec
Ocean Energy Conference

Colaboran

GRUPO
spri
TALDEA

Euskadi, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EHONKABAZEN-GARAPEN,
JAIAN-GARAITZA
ETA
TRANTURBIO SAILA
DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

Organiza

**B!
E!
C!** **BILBAO
EXHIBITION
CENTRE**

EXPOSSIBLE!

bilbaoexhibitioncentre.com

Participa en la actualidad del certamen en:

World Maritime Week Awards sariketaren lehen edizioa antolatu du World Maritime Weeke. Itsasoko sektoreko profesionalen arrakastak nabarmentzeko eta ospatzeko aukera izango da, eta nazioartean sektorearen lehiakortasuna sustatzea izango da helburu nagusia.

1. EREMUA

Sariketa honen eremua **NAZIOARTEKOA** da. Nazioartean, estatuan, eskualdean edo udalerrian garatutako egitasmoak aurkez daitezke.

2. PARTAIDEAK ETA HAUTAGAITZAK

Honakoek parte har dezakete sariketan: enpresek, pertsona fisikoek, instituzio-erakundeek, GKE-ek, langileen gremioek, unibertsitateek, ikastetxeek, udalerriek edo itsas sektorearen garapena sustatzen duen (produktu, zerbitzu, proiektu puntual eta/edo aldizkako proiektu baten bidez, edo itsas sektorea hobetzeko inpaktua duten jarduketari balioa emanda) beste edozein eragile motak.

3. SARIEN KATEGORIAK

Honako sariak emango dira; aurrerantzean, sari-kategoria deituko diegu: 1 sari, ordezkaturako sektore bakoitzeko (SINAVAL, EUROFISHING, FUTUREPORT & OEC). Guztira, 4 sari:

- SINAVAL saria
- EUROFISHING saria
- FUTUREPORT saria
- OEC saria

4. IRIZPIDEAK

Epaimahaiak honako irizpideen arabera sarituko du sari-kategoria bakoitza:

- Proiektuaren, produktuaren, zerbitzuaren edo jarduketaren **originaltasuna**
- Ordezkatzen duen sektorean duen **inpaktua**
- Industriaren zer **erronka edo arazori** ematen dion irtenbidea
- Industrian zer **onura** izatea aurreikusten den eta errentagarritasuna
- **Enplegua sortzea**
- **Teknologia berrien** erabilera, berrikuntza eta digitalizazioa
- Proiektuak, produktuak, zerbitzuak edo jarduketak **ingurumenean duen inpaktua** eta jasangarritasuna
- **Ibilbide** pertsonala, enpresaren ibilbidea...

Hautagaitzek, haien proposamena aurkeztean, gai izan behar dute proiektuaren bideragarritasuna arrazoitzen duten datuak eta adibideak emateko. Proposamen horiek ideia hutsak ez direla frogatzea da helburua; hau da, gauzatuta daudela (edo laster egongo direla), inpaktua izango dutela eta itsasoko industriari mesede egingo diotela.

5. BIDALKETAK, EPEA ETA DOKUMENTAZIOA

Hemen topa dezakezen formularioaren bidez aurkeztu behar dira hautagaitzak, wmw@bec.eu – ra bidaliz **2023ko otsailaren 28a** baino lehen. Hautagaitza bidaltzean, parte-hartzaileak guztiz onartzen ditu lehiaketaren oinarriak.

Epaimahaiko kideek **martxoaren 13ko** asteen jakinaraziko dituzte haien botoak eta epaia emango dute. **2023ko martxoaren 22an** jakinaraziko dute epaia, WMW Awards lehiaketako sari-banaketan bertan.

6. PUBLIZITATEA

Hautagaitzak aurkeztu ondoren, gure plataformetan argitaratzen joango gara. Batetik, World Maritime Week Awards sariketaren gardentasuna eta prozesu demokratikoa sustatzeko. Bestetik, proiektuaren eta sektorearen aurrerapenak ezagutzera emateko, proiektu horiek gero saria jasoko duten edo ez kontuan izan gabe. Itsasoko sektorea modu positiboan berrelikatzen duen egitasmoa da, eta parte-hartzeko eta itsas sektorearen garapena sustatzeko deia egiten die profesionali.

7. SARIA

Sinaval saria, Eurofishing saria, FuturePort saria eta OEC saria kategorietan, bi urterako golardo bat izango da saria. Hautagaitzaren lana aitortuko du sariak, eta World Maritime Week Awards sariketako jaian zehar emango da (2023ko martxoaren 22an, Bilbao Exhibition Centren). Bilbao Exhibition Centrek (BEC) hautagaitza finalistaren hedapena egingo du eskura dituen bitartekoetan, eta prentsa-ohar bat bidaliko du, hedapena handitzeko. Saritu guztiek diploma eta garaikurra jasoko dituzte, ziurtapen gisa.

8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Sari-kategoria bakoitzean epaileen boto gehien jasotzen duen hautagaiari emango zaio saria. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. World Maritime Week azokako kongresuetako (SINAVAL, EUROFISHING, FUTUREPORT eta OEC) Batzorde Zientifikoek osatuko dute epaimahaia.

9. DATUEN BABESA

Lehiaketan parte hartzeko bildu beharreko datu pertsonalen tratamendua honako arauen arabera egingo da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (DPBEDBLG). Lehiaketan parte hartu ahal izateko ezinbestekoak diren gutxienerako datuak eskuratuko dira sariketaren hautagaitzen bidez.

